



**tolosaldeko
ataria**

gaitzaundi PREBIALIZATZEA hitza TXANTRE



2014-01-31

65 zenb.

Merkataritza dinamizatzen

10-15

Azken sei hilabetetan sortutako hondakinen %43a birziklatu da 4-5
Gaur jarraituko du gazte mugimenduaren aurkako epaketak 6
A. Artolaren begirada gatazka soziopolitikoari 16-18 • Agate Deuna 22-25



hirukide

Tolosa

9 4 3 6 7 3 9 4 8

www.hirukide.org

hirukide@hirukide.org



Etorri eta ikusi!



TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA



telefonoa
943651063
webgunea
www.samaniego-tolosa.com
e-posta
012244aa@hezkuntza.net



:: Haurreskola
(0-2 urte Plaza Berrian)
:: Haur eta Lehen Hezkuntza
(2-12 urte Samaniegon)



07:30etik
aurrera
Haur Txokoa



ORIXETOLOSA

telefonoa
943651387
webgunea
www.orixebhi.hezkuntza.net
e-posta
012980aa@hezkuntza.net

Mundu Zabalerako Zubia

- :: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- :: ZIG - Lanbide Tailerra
- :: Batxilergoak

euskaraz bizirik nahi dugu

Matrikula epea: otsailaren 3tik 14ra

Ronaldoren malkoak



Irene Larraza
Etxepare Euskal Institutuko komunikazio arduraduna

«Akvile lau urtez bizi izan zen Barzelonan eta ez zuen sekula jakin nor zen Messi. Nik Asturiasen ikusi nuen lehen aldiz eta seigarrenez Bruselan; bertan, hotz pixka bat pasatzeaz aparte, Maradona nor zen ere ez zekiela ohartu nintzen. Harrituko zarete akaso, baina nor ausartzen da horri ezjakintasuna deitze-ra? Baietz esango dute futbol taldeen izen gehiago ezagutzen dituztenak, zuhaitzen izenak baino. Baietz esango dute telebista saioen izen gehiago ezagutzen dituztenak, landareen izenak baino. Landareak ezagutzeak izena jakitearekin zerikusia izango balu bezala... Baina nonbaitetik hasi behar, ezta? Hau pentsatu nuen egun batean, autobus batean nindoala». Hiru aldiz irakurri nuen testu hau urtarrileko arratsalde batean, Aranburu Jauregian, Pablo Delcielo txiletar artistaren lan batean. *Esto es TVida* erakusketan.

Egun berean Iñigo Astizen *Irakurlea irakurtzen* artikulua kaleratu zuen *Berria* egunkariak, Harkaitz Zubiri idazle eta soziologoak UEUko *Uztaro* aldizkarirako egindako euskarazko literaturari buruzko azterketaz. Baikorra da: 15.000-20.000 irakurle sutsu dituela ondorioztatu du (!) -Karlos Linazasorok bereak

35 baino ez direla badio ere-. Baina gauzak hobeto egin daitezkeela dio.

Hobetzeko hiru alor zaindu behar dira, bere ustez -eta oro har euskal kultur gintzarako balio duela esan-gotzeko- nuke-. Lehenik, hezkuntza: zale-tasuna lantzea -«Kontua ez da idaz-lerik onenen izenak ikastea garai batean errege godoak ikasten zituz-ten bezala. Ikasleen artean zaletasuna pizteak behar luke helburua». Bigarrenik, hedabide publikoen ar-dura. Horixe: posible ote euskal ko-munikabide asko -adibidez- Miley Cyrusen txorakerien berri astero jasotzea eta -adibidez- mundu mailan txalotzen ari diren euskal antzerki konpainia bat aintzakotzat ez har-tzea? Eta hirugarrenik, fokua: egile-aren figura publikoari bere lanari baino gehiago erreparatzen diogula salatzen du ikerlariak.

Hobe da gure sortzaileen izenak ezagutzea ez ezagutzea baino, bai. Nonbaitetik hasi behar, ezta Delcielo? Baina guk, benetan, zer kontsu-mitzen dugu?

Euskal artistek, hala ere, lanean darraite. Zer krisi? Haiak ez dira sekula beren sorkuntzaz bizi izan, profesionalak izanagatik. Haien lanari etekina ateratzen dion kultur indus-tria lanpetuta dabil, bere burua salbatzen. Erakundeak sustatzaile behar duten eta hilero soldata etxera daramaten -daramagun- kultur tek-nikari eta kudeatzailez beteta dau-de... baina nolako baliabide eta au-rrekontuekin?

Eta bitartean denok Ronaldoren malkoei begira.



tolosaldeko ataria



TOLOSALDEKO hitza®



Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, S.L

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Zuzendaria: Ainhoa Oizartzabal

Telefonoa: 943 655695

Faxa: 943 650018

Webgunea: www.ataria.info

E.P: ataria@ataria.info

Irratia: FM 107.6

Papereko editorea: Eneritz Maiz.

Interneteko editorea: Rebeka Calvo.

Irratiko editorea: Jon Miranda.

Publizitatea: 661 678818 • publi@ataria.info

Tolosaldeko

Komunikazio Taldea, S.L-ko kideak:



BERTAKO HEDABIDEAK



berria



Tolosaldeko gizarte eragileak

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:

- Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURAREN SAIA
Hizkuntza Politikaren Saia

Hondakinen %43 birziklatze bidean, azken 6 hilabeteotan

Tolosaldeko biztanleria igo egin den arren, hiri hondakinak murriztu egin direla azaldu dute

ITZEA URKIZU

Pozik azaldu dira Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkarri Amaia Azkue eta mankomunitateko teknikari Gemma Ezeiza, 2013ko datuei begira. Urtea «emankorra» izan dela azpimarratuz, eskualdeko datuak plazaratu dituzte. Besteak beste, Tolosaldean azken sei hilabeteotan sortutako hondakinen %43 birziklatze egin dutela nabarmendu dute.

Amaia Azkue eskualdea zero zabor bidean jartzearen onurei begira jarri da agerraldian: «Helburua beti bera da: ahalik eta gehien gaika sailkatu eta birziklatzera bidaltzea». Gauzak horrela, 2013a «urte aktiboa» izan dela azaldu du Tolosaldeko Mankomunitateko ordezkarriak.

Batetik, pasa den maiatzean



Gemma Ezeizak eta Amaia Azkuek eman zituzten bilketa datuak. I. URKIZU

egindako sentsibilizazio kanpainak arropa nahiz ontzi arinen bilketa areagotu duela azaldu dute.

Era berean, konpostatze kanpainak ere fruituak eman ditu eta, 2013an, 2.000 familiek bat egin dute etxeko hondakin organikoak autogestionatzeko sistemarekin; 2014an beste 1.262 konpostagailu jarri nahi dituzte.


Azkenik, Tolosaldeko birziklatze tasen hobetzea atez atekoarekin ere lotu dute: gaur egun 6 herritan darabilte gaikako bilketa sistema, eta Ibarra izango da zazpigarrena.

Biztanleria gora, hondakinak behera

Eskualdeko biztanleria datuak emanez hasi da Gemma Ezeiza. 2012. urtean Tolosaldean 60.725 biztanle baldin bazeuden, 2013an igo egin zen zenbakia: 61.114 biztanle ditu eskualdeak, beraz. Hala ere, eta «azken urteotako joerari eutsiz», hondakinen sorkuntza jaitsi egin da %7: «1.667.000 kilo gutxiago sortu ditugu Tolosaldean».

Hondakin tona eta erdi inguru hori biztanle bakoitzarentzat zenbateko hondakin kopurua den ere

Jasotako gaien %ren bilakaera sortutako Hiri Hondakin guztiei dagokionez



zehaztu du teknikariak: «Batazbestean, 2013. urtean 397 kilo hondakin sortu ditu herritar bakoitzak; horietatik 156 kilo gaikako bilketaren bidez berreskuratu ditugu, eta 242 kilo, berriz, zabortegira bideratu dira».

Eskualde osoa kontuan hartuta atez ateko sistema ekainean hasi zenez, organikoa lehenago biltzeko aukerarik ez da sekula izan. «Aurreapauso handia» eman dela azpimarratu dute, hala ere. Bide bereetik, ontzi arinen bilketa %28,2 igo dela nabarmendu dute, eta atez atekoari nahiz sentsibilizazioari egotzi diote igoera.

Halaber, arroparen edukiontzia-aren erabilera ere nabarmen igo da pasa den urtean: %14 igo da bererabili eta birziklatzeko arropa kopurua.

Azkenik, beiraren bilketa azaldu dute. 1980ko hamarkadaz geroztik biltzen da eskualdean, eta erabilera «ona» izan da beti. Hala ere, %2,4 igo da, 2013an, beiraren bilketa.

«Errefusa %25 bakarrik»

Zazpi hilabeteko epea soilik baloratu ahal izan du, mankomunitateak, atez ateko bilketari dagokionez, baina datuak «oso onak» direla nabarmendu dute pozik. «Sistema honen lanean hasi zirenez geroztiko batazbestekoa ateraz gero, hondakinen %75 bideratzen da birziklatzera». Horrenbestez, zabortegira %25 eramaten dute.

Atez ateko sistema darabilten herrietako hondakinen %75 hori, honako gaiek osatzen dute: organikoak %49,2 edo 470 mila kilo; ontzi arinak %16,5 edo 157 mila kilo; eta, azkenik, papera %9,4 edo 89.460 kilo.

Horrenbestez, eta atez ateko bilketa ezarri zenetik hona, Tolosaldeko hondakinen %43a bideratu da birziklatzera, eta bide horretan jarraitu nahi dute, «ondorengoei etorkizun hobea uzteko».

Tolosako Udalbatza, abortuaren legearen aurka

Pasa den astearteko osoko bilkuran aho batez onartu zuten gaiari zegokion mozioa

I. URKIZU TOLOSA

PPren Espainiko Gobernuak, «jaino ez denaren eskubideak defendatzearen aitzakian, emakumeen eskubideak zapaldu nahi ditu» Tolosako udalbatzaren ustez. Hori dela eta, abortuaren legearen aurkako mozioa aho batez onartu dute azken osoko bilkuran.

Batetik, *Kontzebituaren eta emakume haurdunaren eskubideen babeserako* Lege Organikoaren aurreproiektua atzerakoitzat jo dute udal ordezkariak, eta bide horretan, udalak emakumeen ugalketaren autonomiarako duen konpromisoa

berretsi nahi dute; Eusko Jaurlaritzari eskatu diote emakumeek ugalketarekiko erabakiak askatasunez hartu eta gauzatu ahal izateko neurriak har ditzala.

Gainera, auzi horretan erakunde eta elkarte feministek egindako lana goraiatu nahi izan dute Tolosako udalbatza osatzen duten taldeek, eta herritarrei ere mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatu diete, «oinarriko eskubide honen alde egin dezaten eta Espainiako Gobernuaren eta PPren kontrarreformaren aurkako mobilizazioetan parte har dezaten».

Horrenbestez, azken osoko bilkuran onarturiko guztia Eusko Jaurlaritzari, Espainiar Estatuko Gobernuari eta Justizia Ministro den Alberto Ruiz Gallardonari helaraziko dio Tolosako Udalak

• tolosa@ataria.info •

Udaberri dantza taldeari lokala utzi dio udalak

20 urterako lagatze kontratua sinatu dute Igaralde kaleko lokalagatik

I. URKIZU TOLOSA

Tolosako Udaberri dantza taldeak hitzarmena sinatu du udalarekin, Igaralde kaleko lokalaren lagatzea dela eta. Duela zenbait hamarkada ere kultur taldeak ustiatu eta konpondutako lokala da Igaraldekoa, eta aurren, taldearen beharrak medio, 20 urterako utzi diete lokala kidei.

'Arin arin 20' aldizkaria kalean

Urtekari formatoa duen 20. alea argitaratu dute Udaberriko kideek, beren aurrekoen lanari eutsiz. Taldeko jarduera nahiz kultur artikulak plazaratu dituzte argitalpenean.

Arin Arin aldizkariaren ale berria www.udaberri.com-en nahiz QR kode honetan ikus daiteke.

'Arin arin 20'.

Udaberriren aldizkaria ikusi nahiz deskarga daiteke kode horretatik.



«Konstituzioaren aurkakoak» direla argudioak dio defentsak

Gaur 10:30ean jarraituko du gazte mugimenduaren aurkako epaiketak, Espainiako Auzitegian

ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak gazte mugimenduaren aurkako epaiketan seina urteko zigor eskaera berretsi zuen atzoko saioan, eta hori, «neurritz kanpoko-tzat» jo du Amaia Izko abokatuak, indarkeriazko ekintzarik ez dagoela argudiatuta. 36 auzipetuen artean dira Mikel Ayestaran billabonatarra eta Aritz Lopez tolosarra, eta bi herrietako Gazte Asanbladetan, Segiko kide «desdoblatu» izatea leporatzen die. Ayestaranek adierazi duenez, «ez dago inolako argudiorik, fiskalaz eta poliziak eraikitako akuzazioa besterik ez da, eta hori babesteko frogarik ez dute, eta beste kideen artean lortutako frogak torturapean lortutakoak dira».

Auzipetuen abokatuak atzoko saioan azaldutakoaren arabera,



Gazte auzipetuak, Madriren, epaitegirako bidean. BERRIA

«alde guztiek ondorioztaturikoa da inputatu zaizkien ekintzak soilik politikoak eta sozialak direla». Hala-ber, «eskaerak ez direla proportzionalak» defendatu zuen, «gazteak talde terroristako kide hartuko baliutze ere, aurreikusitako gutxienekoa (6 urte) desproporzionala baita, indarkeriazko ekintzarik gabe».

Gazte mugimenduaren aurkako epaiketa uste baino gehiago ari da luzatzen. Atzo bukatzekoa zen, eta atzokoan gaur arte luzatuko zela esan zuten arren, badirudi datorren astera arte luzatuko dela. Gaur,

10:30ean jarraituko du epaiketak, Espainiako Auzitegi Nazionalean.

Elkarretaratzea, Villabonan

Gaur elkarretaratzea egingo dute, Villabonako Subijana etxean, 19:00etan. Datorren ostiralean, berriaz, hilaren 7an, *Libre* dokumentalaz izango da, Gurean, 19:30ean.

Azken ostirala

GAUR, URTARRILAK 31

Aduna. 20:00etan.
Alegia. 19:30ean.
Altzo. 18:30ean.
Amezketza. 19:30ean.
Anoeta. 19:30ean.
Asteasu. 19:00etan.
Berrobi. 19:30ean.
Berastegi. 19:30ean.
Bidania-Goiatz. 19:00etan.
Ibarra. 19:30ean herriaren sarreran.
Ikaztegieta. 20:30ean.
Irura. 19:30ean.
Gartzelu. 19:30ean.
Txarama. 20:15ean.
Lizartza. 20:00etan.
Tolosa. 19:30ean.
Amasa-Villabona. 20:00etan.
Zizurkil. 20:00etan.

Azken ostiraleroko elkarretaratzeak

Presoen bisitetan jasandako «presioak» salatuko dituzte

I. TERRADILLOS

Euskal presoen alde hileko azken ostiralero egin ohi diren elkarretaratzeak egingo dituzte gaur, Tolosaldeko herri gehienetan, ohiko ordue-

tan. Bertan, besteak beste, Bilbon iragan urtarrilaren 11n izan zen manifestazioaren inguruko balantzea egingo dute presoen senide eta gertukoek. Era berean, presoei bisitan joaterakoan jasotzen ari diren «presioak» salatuko dituzte; diotenaren arabera, «dispertsioaren amaiera inoiz baino ageriago uzten du egoera honek». Bertaratzekeo deia egin diete herritar guztiei.

Alurr dantza taldearen 'Iturriaren geroa' ikusgai



Alurr dantza taldeko kideak, 'Uztartuz' ikuskizunean. ATARIA

Gaur izango da ikuskizuna, Belabieta kiroldegian; 140 dantzari ariko dira

I. TERRADILLOS IBARRA

Ibarrako Alurr dantza taldeak *Iturriaren geroa* ikuskizuna aurkeztuko du gaur, Ibarrako Belabieta kiroldegian, 20:30ean. Uzturpe Ikastolaren kultur astearen barruan koka-

tzen da saioa, eta herritar oro dago gonbidatuta.

Emanaldi honetan LH1etik DBH 4ra bitarteko haur eta gaztetxoak ariko dira dantzan, 12 talde eta 140 neska-mutil inguru. Alurretik esan dutenez, «ahalegin handia» egin dute dantzak, erropak, musikak eta gainerako xehetasun guztiak «arreta handiz» prestatzeko. Dantza tradizional batzuk berreskuratu dituzte, eta horiek ikusteko aukera izango da, besteak beste.

Hezurtegi bat egingo du Udalak, hilerriko otoizlekuaren atzealdean

I. TERRADILLOS IBARRA

Ibarrako Udalak hilerrian hezurtegi bat egingo du. Otoizlekuaren atzealdean, hilobiak dauden lekuan jarriko du, eta obrak hartuko dituen hilobien zerrenda egin dute. Hori familiartekoen eskura dago udal bulego orokorretan eta hilerriko sarrean. Martxoaren 1a baino lehen jakinarazi behar zaio udalari gorpuzkinekin zer egin.

Gaztañondo erretirodunen elkartearekin egun pasa, Donostiara

I. TERRADILLOS BERASTEGI

Gaztañondo erretirodunen elkarteak egun pasa antolatu du otsailaren 8rako. Donostian pasako dute goiza, eta Eula sagardotegian bazkaldu eta gero, Oinanamera joango dira arratsaldean. 32 euro ordainduko dute bazkideek, eta gainera koei 35. Lehenbailehen izena ematako eskatu dute, eta otsailaren 2a izango da azken eguna.

Oier haurrari laguntzeko ekimena

IBARRA. San Filippo gaixotasuna duen Oier Iribarren haurraren sendaketan lagunduko du Ibarrako parrokiak. Santa Ageda bezperan koruak ateratakoa eta igandeko elizkizunean bildutakoa baliatuko dute.

Pintxo potea egingo dute gaur, 19:00etan

BERASTEGI. Hiru astero antolatzen dute pintxo potea Berastegin, Urepele elkarteak, Zelai eta Kako tabernek eta Udalak. Bada, gaur izango da txanda, 19:00etatik aurrera.

Odol ematea egingo dute gaur, 18:30ean

BERASTEGI. Berastegi eta inguruetako odol emaeleek hitzordu berria dute gaur. Muñagorri eskolan egingo dira odol emateak, 18:30etan hasi eta 20:30ak bitartean.

Dantza Soka eguna prestatzeko bilera

ANOETA. Dantza Soka eguna otsailaren 22an izango da, eta prestatzeko bilera izango da astelehenean, otsailaren 3an, 19:00etan udaletxean.

Inauterietarako afarian izen ematea

BERASTEGI. Inauterietako afaria izango da otsailaren 22an. Otsailaren 14ra arte eman daiteke izena, Urepelen, Zelai tabernan edota udaletxean.

Dantzazaleentzat hitzordua, gaur

ASTEASU. Dantzaren inguruko beste saio bat izango da gaur, 16:30ean, eskolan. Herritar guztiak daude gonbidatuta.

Negurako eta udaberrirako ikastaro ugari, **Alegian**

Zahartzaroa, amatasuna, mekanika, argazkintza... dira ikastaroen gaietako batzuk

ERREDAKZIOA

Alegiako kultur etxeak negurako eta udaberrirako ikastaro eskaintza oparoa prestatu du. *Zahartzaro ederra* izenekoa izango da eskainiko den lehenengoetakoa. Zahartzaroen inguruko aurreiritziak albo batera uzten lagunduko du ikastaro honek, eta 60 urtetik gorako pertsonen zuzenduta dago. Otsailaren 18an eta 25ean, martxoaren 11n, 18an eta 25ean, eta apirilaren 1ean eskainiko da, 10:00etatik 12:00etara. Izena emateko, otsailaren 14ra bitarte dago epea, eta gizarte zerbitzuetara jo behar da, as-

teartetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era.

Otsailaren 5ean, 12an, 19an eta 26an *Fimo* ikastaroa eskainiko da kutur etxean, 15:00etatik 16:30era. Izena emateko kultur etxera bertara jo beharko da otsailaren 4a baino lehen. Ikastaro honek 10 euroko prezioa izango du.

Martxoaren 15ean eta 29an, Autodefentsa ikastaroa eskainiko da. Lau orduko bi saio izango dira, 15:30etik 19:30era, eta izen emate epea otsailaren 14ean itxiko da. Parte hartu nahi duenak gizarte zerbitzuetara jo beharko du ohiko ordutegian.

Amatasunaren inguruko ikastaroa ere eskaintzen eskutik joango da Alegiara. Bizitza seme alaben heziketari eskaini eta hauek etxetik joatean hutsunea sentitzen

duten amei zuzendua dago. Apirilaren 29an eta maiatzaren 6an, 13an, 20an eta 27an izango dira saioak, 18:00etatik 20:00etara kultur etxean, eta izena emateko epea apirilaren 1etik 10era egongo da zabalik, gizarte zerbitzuetan.

Apirilaren 4an eta 5ean kotxeen mekanikari buruzko ikastaroa eskainiko da kultur etxean: hilaren 4an, 16:30etik 20:30era, eta 5ean, 10:00etatik 14:00etara. Izena emateko epea zabalik dago, eta otsailaren 14an itxiko da, gizarte zerbitzuetan ohiko ordutegian.

Azkenik, argazki albumak egiteko ikastaroa ere eskainiko da martxoaren 13an, 20an eta 27an. 17:00etatik 20:00etara izango dira saioak eta izena emateko kultur etxera jo beharko da otsailaren 10etik 21era, 10 euroren truke.

Irudia Bidania-Goiatz



Bisita berezia Txinkortan

Bidania-Goiaztarrek bisita berezia bat izan zuten aurreko asteazkenean. Txinkorta eskolara Porrotx pailazoa joan zitzaizen. Ekainaren

8an ospatuko den Eskola Txikien festarekin loturik izan zen bixita, eta festa egunean berriro itzuliko zela esan zuen Porrotxek. **ATARIA**

Artista liburu tailerran izen emateko aukera

TOLOSA. Gaur amaitzen da Artista liburu tailerran izena emateko aukera, Tolosako haur liburutegian. Horretarako, 943 69 74 62 zenbakira deitu behar da, 09:00etatik 14:00etara.

Inauterietako kartel alternatiboa

TOLOSA. Otsailaren 2an, igandean, amaituko da Box.A-k antolatutako Inauterietako kartel alternatiboa aurkezteko epea. Kartel irabazlea zein den hilaren 7an jakinaraziko dute, eta ondoren, guztiekin erakusketa egingo dute.

Kirol taula

ALEGIA

PILOTA

Urtarrilak 31, gaur

19:00. Intxurrekoen lau partida.

AMASA-VILLABONA

PILOTA

Urtarrilak 31, gaur

20:15. Behar Zanakoen bi partida.

Otsailak 2, etzi

17:00. Behar Zanakoen partida.

AMEZKETA

PILOTA

Otsailak 1, bihar

16:30. Zazpi Itturrikoen partida.

BIDEGOIAN

PILOTA

Urtarrilak 31, gaur

19:30. Aurrera Saiazekoen bi partida.

IRURA

PILOTA

Otsailak 1, bihar

14:00. Trinketean, Gipuzkoako txapelketako zazpi partida.

Otsailak 2, etzi

11:30. Trinketean, Gipuzkoako txapelketako bi partida.

TOLOSA

PILOTA

Otsailak 1, bihar

11:00. Aurrera Saiazekoen partida Beotibarren.

16:30. Uzturpen hiru partida.

17:00. Ogi Berri Migel Soroa Txapelketako hiru partida.

Otsailak 2, etzi

12:00. Beotibarren partida.

ARETO FUTBOLA

Urtarrilak 31, gaur

20:30. Gipuzkoako Liga, Usabalen.

20:30. Eskolpioetan, Hirukide Plo-mixen partida.

Otsailak 1, bihar

16:00. Usabalen Laskorain-Bakio.

18:00. Uzturpen, Orixe-Egintza.

20:00. Derbia Hirugarren Mailan eta Eskolapioetan: Tolosala-Laskorain.

SASKIBALOIA

Otsailak 1, bihar

09:00. Usabalen bost partida.

ESKUBALOIA

Otsailak 1, bihar

18:30. Usabalen, Tolosa-Urdaneta.

Otsailak 2, etzi

10:15. Kadeteen partida, Usabalen.

FUTBOLA

Otsailak 1, bihar

09:30. Usabalen bost partida. Azken lehia 17:30ean hasiko da.

ATLETISMOA

Otsailak 1, bihar

11:00. Berazubín probak.

ZIZURKIL

PILOTA

Urtarrilak 31, gaur

19:00. Ziotzakoen bi partida.



Ogi Berri Migel Soroako partida. ATARIA

Otaño, binakako aizkora txapelketan

Ogi Berri Migel Soroa Txapelketaren jardunaldi berria, Tolosako Beotibarren

ASIER IMAZ

Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketaren jardunaldi berri bat jokatuko da asteburu honetan. Aizkolarien artean Ibarroko Unai Otaño ariko da lehian, Leitzako Amazabal pilotalekuan. Aizkora jaialdia igandean antolatuko dute, 12:00etatik aurrera. Otañok Iñaki Azurmendiarekin osatuko du bikotea, eta aurkariak, Jon Rekondo eta Ander Erasun izango dira. Palmaresa begiratuta, faborito argiak nortzuk diren jakitea ez da zaila. Iñaki Azurmendi egungo Euskal Herriko txapelkun handia da, eta Unai Otaño binakako txapelketan azken bi urteetako irabazlea. Ibartarren bikotea Joseba Otaegi izan da azken bi urte horietan, baina lesioa medio, zizurkildarra ez da txapelketan egongo.

Ogi Berri Migel Soroa, bihar

Tolosako Beotibar pilotalekuan Ogi Berri Migel Soroa Pilota Txapelketaren hirugarren jardunaldia jokatuko da larunbatean. Hiru partidez osatutako jaialdia 17:00etan hasiko da, eta kantxara irteten lehenak jubenilak izango dira: Egiguren-Olaizola eta Errandonea-Aizpurua. Ondoren, 21 urte azpiko txanda izango da; Ansa-Sanchez eta Artea-ga-Erostarberen arteko lehia izango da. Azkenik, nagusietan, Ojuel-Azpitarre bikoteak Azpiri-Irustaren aurka jokatuko dute. Etorkizuneko pilotariak ikusteko aukera ederra izango da, beraz, Beotibarren.



Tolosan 1.500 lagunek lan egiten dute komertzioetan eta ostalaritzan; 500 establezimendu dira, guztira. ITZEA URKIZU

«Hamar urteotan mantendu egin da ireki eta ixten diren komertzioen ratioa»

I. URKIZU/I. TERRADILLOS

Lekukoa pasatu dio batak besteari. Ez da, ordea, nolanhiko lekukoa izango. Tolosako komertzio eta ostalarien ordezkaritzaren ardura zuen orain arte Juanjo Ruizek (Tolosa, 1970), eta Gorka Arregik (Tolosa, 1977) aro berri bati ekingo dio, jada bizia den herri bat are gehiago biziberritzeko asmoz.

Tolosa & Co elkarteko lehendakari-ritza aldatu berri duzue. Nolakoa da elkarteko funtzionamendua?

Gorka Arregi: Elkarreak zuzendaritza batzorde bat du, eta bi urtez

behin berritzen da hauteskunde bidez.

Juanjo Ruiz: Bi urtez behin zuzendaritza batzordearen erdia berritzen dugu eta, modu horretan, batzordean esperientziadun norbait aritzen da beti. Hautagaitza bat edo gehiago aurkezten dira, lantaldeen bitartez, eta horien artean aukeratu behar izaten da. Horrela, behin zuzendaritza aukeraturuta, lehendakariak kudeatu behar izaten du zuzendaritza batzordea, Tolosa & Co-ren ordezkaritza publikoa izatearekin batera. Honela, zuzendaritzak elkarteko kide guztiei helarazten dizkie iriz-

pideak, eta, alderantziz, kideek beren ordezkarien bitartez aurkeztu ditzakete proposamenak, iradokizunak, kexak nahiz ideiak.

Elkarteko lehendakari-ritza hartu zenuenean zehaztutako erronkak bete al dituzue?

J.R.: Zuzendaritza batzorde berri bat aurkezten denean, edo urte berriari ekiten zaionean, lehendakari-ritzak urte osoko egitarau moduko bat aurkezten die kideei. Horien artean, badira urtez urte errotu diren jarduerak: Braderie-a, elkarteko kideen topaketa, eta abar. Beste asko, ordea, egitasmo berriak iza-



ten dira. Nire ustez, guk, hasieran hartu genituen konpromisoak gauzatu ditugu, eta jada egiten ziren jarduerak indartzeaz gain, hasiera batean aurreikusi ez genituen zenbait egitasmo ere aurrera eraman ditugu. Dena den, elkarteko kideek erantzun beharko lukete.

Tolosa Merkat bezalako egitasmo arrakastatsuek erreferentzia izatera eraman zaituzte. Pozik egindako lanarekin?

J.R.: Tolosa Merkat duela hiru urte inguru sortu zen, orain dela gutxi plazaratu dugun arren. Aipatzekoa da Lehendakartzako saria jaso berri duela, zaharkitutako gune bat komertzioaren bitartez biziberritzeagatik. Proiektu aitzindaria da, gainera, eta hainbat udal etorri dira ideia ezagutzera, beren herrian garatu ahal izateko. Halako egitasmo bat gauzatea konplexua da, Tolosako Udalak, Eusko Jaurlaritzak, lokaletan jabeek eta ekintzaileek parte

hartu baitute norabide berean, gure elkartearekin batera. Baina balio izan du, azken hilabeteotan Tolosako 20 establezimendu irekitzeko; horietatik 6 Kale Nagusian ireki dituzte. Uste dut emaitza bistakoa dela, eta Kale Nagusia nabarmen biziberritu duela Tolosa Merkat. Hala ere, talde lanari eta udalaren babesari esker atera da aurrera; oso zaila zatekeen bestela.

Jarraipena izango du?

G.A.: Zalantzak ditugu programaren jarraipenarekin, finantziazio eta diru laguntzak behar-beharrezkoak baititu. Tolosa Merkatekin jarraituz gero, Kale Nagusian lortutakoak beste leku degradatuetarako eredutzat balio beharko luke.

Tolosa aire libreko merkataritza gunea dela esan izan duzue askotan. Zenbat denda eta komertziantze zarete?

G.A.: Ez da oso zehatza zer den komertzio bat, baina guretzat zerbitzuak ere merkataria dira. Beraz, guztiak gehituz, 500 establezimendu inguru izango gara. Ratioak, behintzat, honakoak dira: Europa mailan 8 denda daude 1.000 biztanleko; Euskal Herrian 15 daude 1.000 biztanleko, eta Tolosan, berriaz, 21ekoa da ratioa!

J.R.: Bai, hori da. Tolosan, 500 establezimendu inguru daude, komertzio, ostalari eta bestelako zerbitzuen artean, eta 1.500 lagun ingururi lana ematen digu sektore horrek.

Zergatik funtzionatzen du merkataritzak hain ondo Tolosan?

G.A.: Nire ustez, Tolosako komertzioak eta beste lekuetakoak arazo berak ditu. Gakoa, ordea, komertzio anitza izatea da eta, era berean, kanpoko jendea erakartzea eta etxeak fidelizatzea.

J.R.: Tolosa dinamika handiko herria da, eta kulturen, kiroleen nahiz bestelakoetan aritzen diren hain-

bat talde daude. Gainera, Tolosaldean eta Leitzaldean komertziorako erreferentzia izan da beti Tolosa, eta orain ere halaxe da. Areago, Andoain eta Azpeitia inguruan nahiz Goierri ere komertziorako erreferentzia da Tolosa. Horrekin batera, esango nuke herri eroso dela, 20 minutuan alde batetik besteraino iritsi zaitzkeelako oinez.

Herri bizia izateak asko lagunduko dizue dendarioi, beraz.

G.A.: Noski, asko laguntzen digu, eta jarduerak eta komertzioek elkarren osagarri izan behar dute. Areago, ondo legoke azoken inguruan hausnartzea eta denon artean hobeto koordinatzea.

J.R.: Hori da. Tolosa ezaguna da, besteak beste, urtean barrena egiten diren azoka bereziengatik: Txuleta festa, Tolosa Goxua, ... Baina baita astebururo Zerkausian eta Euskal Herria plazan egiten den merkatuengatik ere. Askotan esaten den bezala, Tolosan beti dago zerbait.

Krisia, hala ere, nabaritutako zenuen, ezta?

G.A.: Nola ez; langabeziak eta ziurgabetasunak min handia egiten dute. Dena den, orain dela gutxi komunikabide batean esan zuten bi oasi daudela Tolosan eta Irunen, gainerako merkatalguneekin alderatuz gero. Konparaketa horretan Donostia ere sartu zuten, gainera, Donostia izan baita, azkenaldian, denda gehien itxi dituen hiria.

J.R.: Zoritxarrez, krisia txoko guztietara iristen da. Hala ere, nabarmenduko nukeen datu bat bada: azken 10 urteotan mantendu egin da ireki eta ixten diren komertzioen ratioa. Hori, beraz, komertzio indartsu baten erakuslea da, eta lanpostuak mantentzea dakar.

Halako garaiei aurre egiteko berritu egin behar du merkataria?

G.A.: Krisia hausnartu, berritu eta



norabide berriak hartzeko momentua da nire ustez.

Zuen negozioak garai berrietara egokitu eta bezeroak erakartzeko formakuntzarik-edo jasotzen duzue?

J.R.: Prestakuntza ezinbestekoa da, eta Tolosa & Co elkarteak etengabeko eskaintza egiten die kideei, hainbat ikastarotan parte hartzeko. Adibidez, teknologia berriak gure negozioetan txertatzeak berebiziko garrantzia du.

G.A.: Bai. Norberak bere erabakien ardura du, baina, era berean, elkar-
tea ere hor dago Tolosa lehen mailako merkatalgunea izaten mantendu eta ardura orokorrak hartzeko.

Eta zein dira Tolosako merkatarien kezak 2014ari begira?

J.R.: Gauden bezala mantentzea ederki legoke, eta areago, egoera zertxobai hobetzea espero dut 2014. urtean.

G.A.: Oro har, industriaren berpiztea behar dugu; hori eskualdeko motorra baldin bada eta egonkortzen bada, maila onargarrietara bueltatuko baikara.

Industriaz bizi izan den herri eta eskualde bat zerbitzuetara bideratzen ari da, gero eta gehiago. Tolosaldea hirugarren sektoretik bizi daitekeela uste duzue?

J.R.: Tolosako komertzio, ostalari-tza eta zerbitzuak enpresa bakartzat hartuko bagenitu, Tolosaldeko

enpresarik handiena ginateke, alde handiarekin. 1.500 herritar aritzen gara bertan lanean.

G.A.: Industria beti da beharrezkoa eta, gainera, industriaren sektoreko lanpostu batek, 3 eta 5 postu inguru sortzen ditu zerbitzu eta komertzioetan. Gero, energia berriztagarrien eta antzekoen bidez, industria tradiziozala modernora bideratzeko azken joerak beste kontu bat dira.

Duela bi urte inguru, dendariek inbat egin zuten Tolosako ostalariek ere. Zein izan ziren arrazoiak?

J.R.: Eskutik joan behar genuela pentsatu genuen eta, bide horretan, gure zuzendaritza batzordeak hartutako konpromisoetako bat izan zen hori. Ostalariek eta dendariok interesgune bera ditugu eta bezeroei aukera desberdinak ematen dizkiegu, modu horretara, herri biziago eta erakargarriago bat egin ez. Beraz, komertzioak eta aisialdiak bide beretik joan dezaketela eta hala joan beharko luketela uste dut.

Egitasmo bateratuak aurreikusi dituzue tabernariekin?

J.R.: Orain arte elkarlanean aritu gara hainbat jardueratan eta oso emaitza onak izan ditugu, gainera: Babarrunaren azoka, boleibola, Braderie-a, Tolosandblues jaialdia, ... Aurrerantzean gertatzen dena, ordea, zuzendaritza batzorde berriari galdetu behar.

G.A.: Tolosa & Co-ren estatutuetan babestutako interes bateratuak daude eta, beraz, oinarri horiekin ados gauden bitartean, denok teila-tu beraren azpian lan egin beharko dugu.

Tolosako establezimenduetan erabilgarri izango den moneta propioa sortzeko asmoaren berri izan dugu. Zertan da proiektu hori?

J.R.: Egitasmo zirrargarria da eta nahiko garatuta dago, gainera; To-





Gorka Arregik (ezkerrean) Tolosa & Co elkartearen lekukoa hartu dio Juanjo Ruizi (eskuinean). ITZEA URKIZU

lorsako Udalaren erabateko babesare badugu. Dena den, geldirik dago. Lanordu eta bidaia asko eskatzen dituen proiektua da eta, egoera onean dagoen arren, itxaron egin beharko da. Momentuz ezin aurrerapenik eman, eta egitasmoak aurrera egingo balu, epe ertainera litzateke, ez orain.

G.A.: 2014a trantsizio urtea izango da, eta Europako Banku Elkartearen zain gaude, besteak beste.

Aurrera aterako balitz, zein onura litzuke herritarrentzat?

J.R.: Monetaren proiektua hiri-egitasmo bat gauzatzeko sentimenduarekin lotuta dago: Tolosako komertzioarekiko sentsibilizazioa; bertako ekoizleak; kontsumo arduratsua; guztiok herri eta kale biziak dituen herri bat nahi dugula ikustea,...

Hainbeste establezimendu izanda, aldamenekoak lehiakide dira, batetik. Bestetik, ordea, ondoan negozio bizi eta arrakastatsuak izateak, norbere negozioari ere mesede egiten dio, ezta?

J.R.: Tolosa aire librean dagoen merkatalgunea baldin bada, hori guztion artean lortzen dugu, kolektibo moduan: komertzioak, ostala-

riak, azokak, merkatuak,... Guztion baturak sortzen du aipaturiko herri bizi eta erakargarri hori. Nik, behintzat, nahiago dut aldamenean negozio erakargarri bat izan, itxitako lokal bat baino.

Euskarazko merkataritza eta ostalaritza zerbitzua eskaintzeko hitzarmena sinatu zenuten Galizia-arekin. Behar handia al dago esparru horretan?

J.R.: Tolosako ostalari eta komertzio gehienek euskara erabiltzen dute egunerokoan, bezeroekin aritzeko. Hiri euskalduna da eta komertzioetan euskara erabiltzea gure bezeroentzako puntu erakargarrietako bat dela uste dut.

Bezeroen aldetik, beraz, euskara da nagusi?

G.A.: Euskara normalizatua dago dendarien artean, eta %90ak euskaraz egiten du. Bezeroen artean, berriz, gazteenek euskaraz egiten dute eta adinekoak bietan.

J.R.: Gure bezero gehienak euskaldunak dira. Tolosa & Co elkarteak beti sustatu izan du euskara eta beti ahal izan dugun neurrian lagundu izan dugu esparru horretan, gure publikitate kanpainak euskarazko komunikabideetan eginez,

prentsaurrekoak euskaraz eskainiz nahiz kilometroei babesare emanaz. Bide horretan, komunikabideei ere eskertu egin behar dizuegu gure berriak zabaltzerakoan beti jaso izan dugun laguntza. Zuek ere baduzue Tolosa hiri komertzial arrakastatsua izatearen errua.

Halako sektore indartsuaren lehendakaritza hartzeak zernolako ardurak ekarriko dizkizu?

G.A.: Ilusioz beteriko erronka bat da. Alde batetik, inguruko elkarte garrantzitsuenetako bat da eta, bestetik, lehen mailako hiri komertzial bateko elkarte buru izango naiz. Erronkarik handiena, hala ere, datozen belaunaldiari begirako egitura komertziala mantentzeko bideak irekitzea izango da; Tolosan establezimendu bat irekitzea gus-tagarria izan dadila aurrerantzean ere.

Badituzue, jada, datozen hilabeteotarako prestatutako egitasmo bereziak?

G.A.: Bai, berehalakoak Braderie-a eta promozioak izango dira eta epe ertainera begirakoak, berriz, San Estebango parkina, Bizi gunek, belaunaldien arteko lekukoa, sare sozialak eta Visa txartela.

«Garai hauetan geure artean elkartzea beharrezkoa da»



Ibarrako merkatari elkarteko lehendakariak Antton Urrestarazuk, mugimendu handiagoa nabari dela esan du

1999. urtean sortu zen Ibarrako merkatari elkartea. Ondorengo urteetan jarduera izan zuen, baina etenaldi bat izan zuen gero, eta duela bi urte hasi ziren berriro dendariak elkartzen, eta herriko merkataritzak sustatzeko ekimenak garatzen. Egun, 28 dendari dira elkartean.

Antton Urrestarazu merkatari elkarteko lehendakariak gogoratzen duenez, «udaletxean gobernu aldaketa eman zenean, merkataritzak sustatzeko beharra ikusi zen, eta horrekin batera hasi zen berriro elkartea lanean». Orduan jarri zen, hain justu Urrestarazu lehendakari. Berak paper hori duen arren, elkarrearen barruan dagoen 5-6 pertsonako lantaldea nabarmetzen du.

Elkarte txikia dela azpimarratu du Urrestarazuk, baina, hori bai, «pozik» daudela garatzen diren ekintzekin, eta horien emaitzekin. «Kontsumoa herrian geratzea nahi dugu, hori herri osoari etortzen baitzaio ondo». Jakitun dira Tolosa gertu dagoela, eta jende asko hara joaten dela erosketak egitera, baina, hala ere, pozik daude «mugimendu handiagoa nabari delako».

Bestalde, euren artean duten «harreman ona» ere nabarmendu



Merkatari elkarteak banatu ditu Gabonetako kanpainako sariak. Irudian, Olatz Garmendia, Juan Antonio Rodríguez, Maite Aizpuru eta Anttoni Unzueta irabazleak, Jesus Mari Peñagarikano alkatearekin eta elkarteko hainbat ordezkarekin. ATARIA

du Ibarrako merkatari elkarteko lehendakariak. Eta, baita, elkartzeko beharra ere: «Garai hauetan, bereziki, geure artean elkartzea beharrezkoa da. Denen artean egin behar da aurrera». Elkarrearen eta elkarrekin ekintzak antolatzearen ondorioa da, Urrestarazuren arabera, Ibarrako komertzioaren mugimendua izan duen hazkundera azken hilabeteetan. «Ibarran, janari dendak gailentzen dira, eta esan beharra dago ibartarren %80k horietan erosten duela; arropa den den kasua zailagoa da, gutxiago egonik jende gutxiago geratzen baita herrian erosten; azpimarratzeko da, esaterako, lehen herrian ez zegoen zerbitzu berri bat ematen duen telefono mugikor eta ordenagailuen denda bat ireki berri dela, eta gustura dago jabea izan duen harrerarekin». Denda berriek mugimendua sortzen dutela eta hori garrantzitsua dela dio Urrestarazuk, eta oro har, elkarteko dendariak nahiko gustura daudela.

Euren artean egiten duten lanaz

gain, erakundeetatik, egiten den lana beharrezkotzat jotzen du: «Ekintzak-eta burutzeak udalaren babesa nabari dugu, eta hori oso garrantzitsua da guretzat».

Bestalde, hutsunerik aipagarria dendarien batez besteko adinean ikusten du elkarteko lehendakariak, etorkizunera begira «arrisku-tua» izan baitaiteke: «Egun, dendari asko adinez helduak dira, eta kasu askotan ez da uste beraiek erretiratu direnean negozioak jarraipenik izango duenik».

Lehendakari aldaketa

Otsailean batzar orokorra egingo dute, eta bertan pasa den urteko kontuak-eta begiratzeaz gain, lehendakari eta lantaldearen aldaketa egingo dute. «Guk bi urte egin ditugu, eta orain beste talde batek lekukoa hartzea egokitzen da». Badagoela zeregin horretan hasteko prest dagoen talde bat dio Urrestarazuk, eta beraiek hor egongo ez diren arren, lanean jarraituko dutela azaldu du.

«Krisitik ateratzen dakiena indartuta atera ohi da»



Villabonako Kale Nagusian herritarrak erosketak egiten. ATARIA

Jose Luis Fernandez Villabonako Oria elkarteko lehendakariak dio ekimenek eragina dutela salmentetan

Villabonako Oria merkatarien elkarteak 2007. urtean ekin zion bere ibilbideari. Gaur egun, 46 bazkidek osatzen dute elkarteak, eta Jose Luis *Kitilo* Fernandez da lehendakaria. Azken bi urteetan berak izan du ardura hori, eta otsailean lekukoa emango dio elkarteko beste kideren bati, otsaileko batzar orokorrean zuzendaritza aldaketa egingo baitute.

Fernandezek gogoratzen duen moduan, zuzendaritzako kide izan ostean heldu zen bera lehendakari izatera: «Egiten ari ginen lanari jarraipena eman behar zitzaioela ikusten nuen, horregatik erabaki nuen lehendakari aurkeztea». Beraz, orotara lau urte egin ditu zuzendaritzan, baina, orain aldatzeko unea iritsi da, bi urtetik behin gertatzen den moduan. Aldaketarako, bazki-



deen artean zozketa egitea edo boluntarioren bat edo talde bat aurkeztea litzateke bidea: «Egokiago litzateke norbaitek bere burua aurkeztea, eta elkartearen eta herriko komertzioa dinamizatzearen alde lan egiteko prestutasuna agertuko balu». Fernandezek dioenez, orain arteko zuzendaritzak lagunduko lioke, gainera.

Elkarlanean

Taldean, elkarlanean aritzeari ere berebiziko garrantzia ematen dio Fernandezek. «Batzuk, krisi garaian, euren buruari begiratzen diote, eta alderantzizkoa izan beharko luke, elkarlana handitzea, alegia». Izan ere, Oria merkatari elkarteko lehendakariak dioenez, «taldean arituz, indarra handitzen da, esaterako, erakundeetara eskaerak egi-

tera joateko, eta erosketaren bat egitea suertatzen bada, guztien artean eginda denontzat hobe da». Bide horretatik, bere ustez, Villabonako merkataritzak «asko du hobetzeko oraindik», baina, horretarako, «askotan inbertitzen jakin behar da». «Krisitik ateratzen dakiena indartuta atera ohi da».

Erakundeen babesa

Erakundeen laguntza ere beharrezkotzat jotzen du Fernandezek, baina eurek bultzatutako ekimen batzuekin ez dago erabat ados: «Komertzio berriei laguntzak ematen zaizkie, alokairua ordaintzeko, esaterako, baina agian ahalegin bera egin beharko litzateke betiko komertzioekin, eta itxi ez dezaten laguntzak eman». Horri lotuta, askotan erakundeetatik irekitzen diren komertzio kopuruaz hitz egiten dela, baina gutxitan aipatzen dituztela ixten dituztenen datuak dio Oria elkarteko lehendakariak.

Elkarteko zuzendaritza berriari orain arteko bideari jarraitzea gomendatzen dio Fernandezek: «Egina dagoena mantentzea garrantzitsua da, gabonetako edota udaberriko kanpainak, esaterako». Horrekin batera, komertzioen arteko elkarlan handiagoa bultzatu beharko litzatekeela dio, «ekimenak aurrera eramatea errazten baitu horrek». Ekimenen artean, urrian eta azaroan atera zituzten txekeak aipatzen ditu, «salmentei laguntzen dietelako», eta horrelakoak egiten jarraitu behar dela dio. Eta, noski, herritarrak gonbidatzen ditu Villabonan erostera, gogoratuz, «komertziorik gabeko herria, hilda dagoen herria» dela.



Guardia Zibila Tolosako kaleetan, 1916

Haizerauntsi iraultzaileak

Asier Artola
EHUko Historia-Ikerlaria

Gizarte baten zatiketa berrien has-tapenez hitz egiten genuen aurrekoan. Ez zen edonolako garaia izan, izan ere XX. mendean epe labur, er-tain eta luzera garatuko ziren pro-zesu historikoak ulertzeko giltzarri nagusietako bat baita (eta zergatik ez, baita XXI. mende ez hain berri hau ere). Urte haietan hasiko zen 1936ko Gerra Zibila bere goi pun-tuetako bat izango zuen gatazka

soziopolitiko. Urte haietan finkatu-ko ziren egun inguratzen gaituen gi-zarte honen oinarriak.

1906ko martxo aldera urduri zi-ren «Sociedad San Roque de Soco-rros Mutuos para Artesanos» elkar-teko goi kargu eta ohorezko bazki-deak. 1868an fundatutako elkar-tea zen hau, bere eginkizun-tzat klase langilea bere ezbehar eta gaixotasunetan laguntzea zuena, izan diruzko laguntzekin, izan doa-ko sendagai farmazeutikoak emanez. Ez zen ordea egun ezagutzen

dugun sindikatuen gisakoa. Hain justu, bere presidente, idazkari, di-ruzain eta ohorezko bazkide guz-tiak Tolosako industrialak edota al-derdi politikoetako goi karguak zi-ren (eta orduan edo ordura arte behintzat, alderdi politikoek ez zu-ten egun ezagutzen dugun antola-keta modua izaten, «notableen» al-derdiak izaten ziren, egitura finko-rik gabeak, salbuespenak salbuespen). Bestela esanda, diru arazoak zirela eta honen eske igor-tzen zen gutun hura sinatzen zuten



Maiatzaren 1a Donostian, 1914



Tolosako eliteen hainbat kide



Langile elkarteen manifestazioa Bilbon, 1918

hogeita hamar pertsona haietatik bakar bat ere ez zen artisauek, ez langileak. Are gehiago, liberalak eta karlistak (eta hauen arteko barne banaketetatik zetozen tradizionalistak edo integristak, eta abar...) denak, nahasian, zeuden bertan. Tolosako elite politiko eta ekonomikoak nahasian topatuko ditugu behin eta berriro bertako erakunde ezberdinetan. Baina jaun ohoragarri hauek urduritzen zituen, ziurrenik, eta lerro artean irakurrita, ez zen diru kontu hutsa, berau eragin zuena baizik: geroz eta bazkide (bazkide arrunt, ulertzen da) gutxiago zituen elkarlaguntzarako elkarreak. Nora joan ziren ba?

1890eko meatzari bizkaitarren grebaren ostean egin zuten sozialista bizkaitarrek Gipuzkoara Alderdi Sozialista ekartzeko asmoa eta ordukoak dira Facundo Perezagua buruzagi sozialistaren lehen mitinak Tolosan, baina lehen taldexka ez zen horren arrakastatsua izan. 1902 aldera hasiko da talde horren berpizkundea, 1905erako Gipuzkoako hiru talde sozialistetatik bat osatuz. 1912an gertatu zen lehen gatazka handia Tolosan, probintzia mailako mugimenduei lotuta eta «destajoaren» aurka, ekoiztiko produktu kopuruagatik ordaintzen baitzitzaion honela langileari, honek bere burua «gainesplotatuz» lana ahal bezain lasterren amaitzeko eta enpresaren produktibitatea esanguratsuki igoz. Abuztuaren 1ean hasi zen gatazka «La Papelera Española»-ko *couché* sekzioan. Irailaren 1ean inspirazio sozialistako «Asociación de Obreros»-ek grebara deitu zuen, goiz goizetik langileek kaleak hartuz. Liskarrak izan ziren Guardia Zibilekin eta emakumeak manifestarien aurrean jartzen ziren babes gisa, tiroka ez zitzaten. Probintziako gobernadore zibila bertaratu eta langileen eskari guztiak bete zituen joera paternalista batean. Euforia izugarria zen. Sozialis-

ten afiliatu kopurua ehunetik bostehunera igo zen. Tolosako karlistek «haizerauntsi iraultzaileak» iritsi zirela adierazi zuten.

Hurrengo greba aldia askoz sakonagoa izan zen, 1916ko azarotik 1917ko urtarrilera arte iraun baitzuen greba orokorrak. Soldata hobekak, asteroko ordainketa, igandeetako atseden eta sindikatuen errekonozimendua eskatzen ziren bertan. Berriro ere biolentziazko gertakariak eman ziren «ordenaren» agenteekin. Grebaren luzapena zela eta zezen plazan sukalde edo kantina herriko bat finkatu zen, eta behin hau bukatuta, emakumeek berau ez kentzea defendatu zuten bertako otorduen prezio baxuak zirela eta, baina eskakizun hauek ez ziren bete. Antonio Maria Labaienek azaldu zuenez, *«Después de casi dos meses de paro y agotados sus recursos tuvieron que volver al trabajo sin ver satisfechas sus aspiraciones pero con la certeza de haber obtenido un triunfo moral. Los patronos se apuntaron una victoria pírrica que apenas mereció el ága-pe con que celebraron el final del conflicto»*.

Soldaten gorakada txiki bat lortu zuten baina **garaipena, Labaienek esan moduan, batez ere morala izan zen. Kontzientzien mailan ari ziren gertatzen aldaketarik sakonena langileen sektore esanguratsu baten artean**, probintzia mailan eta haraindi. Akabo iraganeko lantegi paternalista eta familiarraren ideia. Biraleta diametral baten ostean, iraganeko «aita» «etsai» bilakatu zen.

San Roqueren estiloko erakundeek gainbepa sakona jasango zuten, nahiz eta patronalak kontrolaturiko «sindicatos amarillos» delakoek sustapen berezia jasan zuten gertakari hauen aurrean, gehienak Elizaren babespean. 1917ko abuzturako Alderdi Sozialistak greba iraultzaile bat deitu zuen Estatu mailan, baina hiru egunen ostean erreprimetua izan zen eta Tolosako langile erakundeak legez kanpo gelditu ziren. Eta oraindik Errusiako Iraultzak piztuko zituen esperantza berriak iritsi gabe zeuden. Ez, inondik ere, urak ez ziren baretu. Hurrengo aleetan jarraituko dugu itsaso asaldatu hauetan murgiltzen.



Guardia Zibila Tolosako kaleetan, 1916



harpidedun izateak badu saria saridunak

1 Solaguen sorta

Sorta bat



www.solaguen.com

- Agustin Agote (Tolosa)

Saridunak etxean jasoko du sorta.

2 Pedro Luis kontserbak

Bi sorta



www.conservapedroluis.com

- Mari Karmen Tolosa (Amezketza)
- Martin Otegi (Amasa-Villabona)

Saridunek etxean jasoko dute sorta.

3 Zabala Sagardotegia

Bi laguntzako bina bazkari edo afari




- Nekane Agirrezabala (Alegia)
- Maider Gallurralde (Anoeta)

Eskaera egiteko, hilabete:

Garagartza baserria • Aduna
943 69 07 74 • www.rzabala.com

Farmaziak



Urtarrilak 31, ostirala

Tolosa

Egunekoa: Bengoetxea, E.
Kale Nagusia, 7
Telefona: 943 67 06 48.
Gaukoa:
Azpiroz, E.
Amaroz auzunea, 9
Telefona: 943 67 51 18.

Otsailak 1, larunbata

Ibarra

Egunekoa eta gaukoa:
Iturrioz, I.
Euskal Herria, 3.
Telefona: 943 67 09 15.

Otsailak 2, igandea

Tolosa

Egunekoa eta gaukoa:
Santamaria, I.
Nafarroa etorbidea, 2.
Telefona: 943 65 46 10.

Otsailak 3, astelehena

Tolosa

Egunekoa: Olarreaga, I.
Korreo, 2.
Telefona: 943 67 01 28.
Gaukoa: Echeveste, J.M.^o.
Gernikako Arbola, 3.
Telefona: 943 65 10 40.

Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanetarako:

Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, esperientzia handiko emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Kotxea ere eskura dauka. Informazio gehiagorako deitu: 943 696 882 edota 606 521 992ra.

Zure iragarki laburra argitaratzeko:

943 65 56 95 edo
ataria@ataria.info
helbidera

Hilberriak eta urteurrenak



MARCELINO ARREGI UGARTEMENDIA



Urtarrilaren 29an hil zen, 79 urte zituela,
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Emaztea: Teresa Usabiaga Larrarte; seme-alabak: Jose Mari, Benja eta Onhintza, Juankar eta Jaione, Maite eta Jabi; bilobak: Odei eta Aran, Jon Ander, Enara, Imanol, Asier, Izaro, Mikel, Martxel; senideak, ezkon senideak, osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.
Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuete, eta arren etor zaitetzela hiletara. GAUR izango da, OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Tolosako CORPUS CHRISTI parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.

Tolosan, 2014ko urtarrilaren 31n

Helbidea: Bizkai kalea, 11

Oharra: Gorputz beila Tolosako ORIA beilatokian egongo da, GAUR, OSTIRALA, goizeko 11:00ak arte.

agenda

TAILERRA

CREActivate Kreatibitate Tailerra.

www.bizzia.net. Urtarrilak 31, ostirala. Tolosa, Lehiberri (09:00).

Arte Tailer Askea. Sormensenak antolatuta. Haurrak eguneroko sistema araututik atera eta beraien sormena garatzeko tailerra da. 4-6 urte bitarteko haurrei zuzenduta. Otsailetik ekainera bitarteko astelehenetan (17:30-19:00). Tolosa, Abastos eraikina, Altzoan elkarte. Izena emateko: sormensena@gmail.com edo 677 340685.

Qi-Gong saio irekia. Doan. Bizitzaren indarra landuz, norberaren burua indartu, osatu, bizitza luzatu, arnasketa landu eta bizimodu lasaia goa eta orekatuagoa bizitzeko aukera izan. Otsailak 1, larunbata. Anoeta, kiroldegia.

JAIALDIA

WomanSarea Lehiaketako

sari banaketa. Urtarrilak 31, ostirala. Tolosa, Lehiberri (17:00).

Hi haiz, hi! Jaialdia. Urtarrilak 31, ostirala. Tolosa, Topic (21:00).


Gure esku dago Tolosaldea. Aurkezpen-jaialdia. Dinamikaren aurkezpena. Dantzariak, bertsolariak, antzezleak, margolariak, etab. Sarrera doan. Otsailak 1, astelehena. Tolosa, Leidor (18:30).

SAN BLAS AUZOKO JAIAK. Tolosa

Otsailak 1, ostirala. Txupinazoa (12:00), ume jolasak (12:30), toka lehiaketa herrialdekoentzat (16:30) eta disko festa (18:00).

Otsailak 2, larunbata. Kalejira 'Konponezinak' Txarangarekin eta diana Tolosako txistulari taldearen eskutik (09:30), meza (11:00), Jon Irazu eta Joseba Otaegi aizkolariak (12:30), Anjel M^a Peñagarikano eta Aitor Mendiluze bertsolariak (13:00), bertsolarien bigarren saioa (18:00) eta Maldabi Anaiak trikitilariak (18:30-21:30).

Otsailak 3, igandea. Meza Nagusia eta produktuen bedeinkapena (11:00), Toka lehiaketa (16:00) eta Malbadi Anaiak, trikitilariak (18:30-21:30).



SAMANIEGOKO I. KULTUR ASTEA

Urtarrilak 31, ostirala. Umeentzat jolasak, ipuin kontalaria eta txokolatada. Tolosa, Larramendiko parkea (17:30).

Otsailak 1, larunbata.

Ate Irekiak Samaniegon. Tolosa, Samaniego Ikastetxea (11:00). **Otsailak 2, igandea.** Mendi irteera: Lizardiren monumentura. Tolosa, Triangulotik (10:00).

JESUSEN BIHOTZA IKASTOLAKO VIII. KULTUR ASTEA

Urtarrilak 31, ostirala.

'Sukaldatu' proiektua Basque Culinary Center-en eskutik, antzerki emanaldiak, jokoak ikasleentzat eta 'Gerta dakizuke' proiektua. Amasa-Villabona, Jesusen Bihotza Ikastola.

Otsailak 1, larunbata. Gimnasia Abdominal Hipopresiboa eta Eskalada Saio Praktikoak.

Otsailak 2, igandea. Ibilaldi neurtua (09:00).

FLEMING BIZIRIK

Urtarrilak 31, ostirala.

Arratsaldeko 17:00etan hasita, haur danborrada, buruhandiak eta erraldoiak eta salda eta bokata jatea. Amasa-Villabona.

Otsailak 1, larunbata.

Xakea, guraso zein haurrentzat (11:00) eta patin lasterketa (16:00).

Otsailak 2, igandea. 'Gure herriko kirola: pelota eta errebotea' (Beharzana elkarte). Amasa-Villabona, frontoi berria (11:00).

LASKORAIN IKASTOLA

Otsailak 1, larunbata.

Jon Magic, pailazoak eta hamaietakoak. Tolosa, Laskorian Ikastola, Sakramentinoak (11:00).



Agenda agenda

UZTURPE IKASTOLAKO XIV. KULTUR ASTEA

Urtarrilak 31, ostirala. Alurr Dantza Taldearen 'Iturriaren geroa' ikuskizuna.

Ibarra, Belabieta kiroldgia (20:30).

Otsailak 2, igandea. Mendi irteera.

IPUIN KONTAKETA

Urtarrilak 31, ostirala. 3-6 urte bitarteko haurrei zuzenduta. Miriam Mendozak eskainia. Tolosa, Errota Haur Liburutegia (18:00).

ANTZERKIA

Hansel eta Gretel. Haur antzerkia.

Otsailak 2, igandea. Villabona, Gurea antzokia.

ODOL EMATEA

Urtarrilak 31, ostirala. Gipuzkoako Odol Emaileak. J.A. Muñagorri Eskola, Berastegi (19:30).

MUSIKA

Luz de Putas eta Tripimonsters.

Urtarrilak 31, ostirala.

Tolosa, Bonberenea (22:30).

Dj Master Class Zigor DZren

eskutik. 'Zuzeneko Instanteak' egitasmoaren barruan, Zigor DZ DJaren master class bat izango da kultur etxean. Urtarrilak 31, ostirala. Alegia, Kultur Etxea (18:00).

McOnak eta Arkada Social. Anoeta. Gaztetxea. 5 euro. Urtarrilak 31, ostirala.

Musika eskolako ikasleen kontzertua. Urtarrilak 1, ostirala.

Tolosa, Musika Eskola (19:00).

The Capaces eta Estricalla taldeen kontzertua. 'Zuzeneko Instanteak'

egitasmoa ixteko, The Capaces eta Estricalla taldeen kontzertua izango da Gaztetxean. Otsailak 1, larunbata. Alegia, Gaztetxea (20:30).

Elkano Browning Cream. Otsailak 1, ostirala. Tolosa, Bonberenea (22:30).

KIROLA

Aizkadi Mendi Elkartearen irteera.

Umeen eski irteera Somport-era. Urtarrilak 31, ostirala. Otsailak 1 eta 2, larunbata eta igandea. Amasa-Villabonatik.

Orientazio ikastaroa. Otsailak 3, astelehena. Oargi Mendi Elkarteak antolatuta.



ZINEA

La bicicleta verde. Seme-alaben heziketa eta baloreak genero ikuspegitik lantzeko. Urtarrilak 31, ostirala. Anoeta, Mikelasagasti auditorioa. (15:00 eta 22:00). 15:00 eta 22:00eko proiektioaren ondoren solaslaldia eskainiko du Sortzen elkarteko partaide batek.

El medico. Otsailak 1, larunbata (22:00); otsailak 2, igandea (19:30) eta otsailak 3, astelehena (21:00). Villabona, Gurea antzokia.

Lucius Dumben berebiziko bidaia. Haur zinea euskaraz. Otsailak 2, igandea. Tolosa, Leidor (17:00).

A proposito de Llewyn

Davis. Otsailak 2, igandea (19:30 eta 22:00) eta otsailak 3, astelehena (21:30). Tolosa, Leidor.

ERAKUSKETA

Lorentxa Beyries-Rikardo Paskual-Patxi

Laskarai-Juan Manuel Galarraga-Gonzalo

Etxebarria. Pintura erakusketa. Otsailaren 26a bitartean. Tolosa, Aranburu Jauregia (17:30-20:30).


Leire Salaberria. Martxoaren 8a arte. Urban Art Sphere, Street Boutique, Concept Store. Tolosa, GKO Gallery.

KZ GUNEA

Urtarrilak 3, astelehena. KZ Guneako dinamizatzailearen bisita. Berastegi (09:00-13:00).

HITZALDIA

Elikadurari buruzko hitzaldia. Iñaki Arratibelek eskainia eta TAKEk antolatuta. Otsailak 3, astelehena. Tolosa, Kultur Etxea (19:00).





Alegian azken urtetan Txintxarri Abesbatza Zazpi Astoren Gainean bertso eskolarekin aritu izan da kantari. ATARIA

Agate Deuna, ohitura zaharrak eskualdean zabalduz

NAIARA ROLDAN DE ARANGUIZ

Baserritar jantzia soinean, kalleko hotzez babesteko; maki-lak eskuetan, erritmoa mar-katzeko; eztarriak garbi, ozen kantatzeko eta eskuak zabalik, eskaintzak jasotzeko. Otsailaren 4ko iluntzeaz ari gara, Agate Deuna bezperaz. Eskualdeko herri gehienetan ohitura zaharrak ez galtze aldera, herritarrek kantari ateratzen dira inguruko baserri, kale eta herrietan Agate Deunari abestuz.

Agate Deuna gurean zabaldutako nomenklatura ofiziala bada ere, tokian toki bestelakoak ere erabili izaten dira: Santa Agata, Dona Aga-

ta, Santa Ageda... Guztiak jatorri paganoa duen ohiturari erreferentzia egin asmoz. Zenbaitek ordea jatorri pagano horrekin ados egon ez eta jatorri kristaua egotziko diote Agate Deunari.

Tradizioa eta kristautasuna aurrez aurre jarriak ez lehen aldiz, noski. Eliza Katolikoaren santutegiak agindu bezala, Agate Deunak otsailaren 5eko ospakizuna hartzen du bere gain; Kataniako Agata Santuaren eguna, hain zuzen ere.

Kristautasunaren erreferentzia hartuz gero, Kataniako Agate Deuna birjina martiria izan zen. Kristauen kontrako garaietan, Agate gazteak Quintianus prokotsula

errefusatu egin zuen, birjinitasuna Jesukristori eskainia ziolako. Mendeku gisara prostituzio-etxe batera bidali zuen eta mirari bezala Agatek birjinitasuna mantendu zuen. Quintianus ernegatuta, gaztea torturatzeko agindua eman zuen bularrak moztuz. Torturatua izaten jarraitu eta Kataniako (Sizilia, Italia) ikatz gori-gorietara bota zuten. Hil eta urtebetera Etna sumendia lehertu egin zen 252. urtean. Orduan Katania eta Siziliako zaindaria da. Su-, tximista- eta sumendikalteak ekiditeko erregutua izaten da. Eta baita emakumearekin lotutako bestelako gaietan ere: bular gaitzetan, erditze zailetan eta edos-

gaitzetan, erditze zailetan eta edoskitze arazoetan. Orokorrean beraz, emakumeen zaindari gisara ikusia izan da Kataniako Agate Deuna.

Irudikatze garaian, Agate Deuna bularrak erretilu batean dituela irudikatu izan da. Bestalde, kristautasunetik urrun, herritarrek Agate irudikatze bestelako elementuak erabili izan dituzte: abere gisa irudikatu izan da askotan, ahuntz edo katu itxurarekin, esaterako. Euskal Herrian gainera ikuspegi sendagarrira ere gehitu izan zaio Agate Deunari.

Mitioa mito, kontua da otsailaren 4ko iluntzea makilak hartu eta 'Zorion, etxe hontako denoi' edota 'Aintzaldun daigun Agate Deuna' bezalako koplak abesteko garaia dela. Tolosaldean ohitura zaharra mantendu da eta *Euskal Herriko eguna* datorren asteartean eskualdeko bazter askotan ospatuko da, Agate Deunaren koplak entzunaraziz.

Asteartean, hortaz, Agate Deunaren mito paganoa ekarriko dute gogora eskualdeko herri ezberdinetan, inauteriekin zerikusia duen festa dena, hain justu, inauterien gertutasuna ere iragartzen duen data.

Inauteriak zuhaitz adarrak kimaetze garaia zen, eta badirudi jaien oinarrian gizon-emakumeen arteko amodio kontuak zeudela. Gizonak koplak kantatzera joan eta bildutakoarekin afaltzeko biltzen ziren gero. Bikoteek beren amodioa lagunen aurrean erakusten zuten afarian eta ondoren, alde egiten zuten, beren amodioa ospatzeko. Elizari bekatuzko giroa zela iruditu eta jaia nolabait garbitzeko sortu zuen Agate Deunaren jaia.

Herriz herri kantari

Ohitura zahar hau guregana iristea lortu da eta aurrerantzean ere otsailaren 4ko iluntzean mantenduko dela igarri daiteke usadio honetan parte hartzen duten haur eta gazte kopuruari erreparatuta. Izan



ere, Agate Deuna bezperan eskean kantari ateratzea herri gehienetan herritarren ekimenez sortzeaz gain, ikastetxeek zein kultur elkarte ezberdinek zeresan handia dute.

Esaterako, Alegian Agate Deunaren ohitura bizirik mantentzearen ardura Txintxarri abesbatzak du. Nerea Pikabeak, abesbatzako kide eta taldearen komunikazio arduradunak jakitera eman bezala, azken urteetako ohiturari jarraituz Larraitz auzotik abiatuko dira kantari baserritar jantziak soinean eta makilak eskuetan. Txintxarri abesbatzak azken lau urtetan bidelaguna izan du: Zazpi Astoren Gaietan Bertso Eskola. Aurten ere, momentuz konfirmatuta ez badago ere, bertso eskola kantari-kide mantentzea espero dute. Alegitarren kasua, he-

rriaren tamaina kontuan harturik, inguruetako baserriak alde batera utzi eta herriko kaleetan barrena arituko dira kantari. Txintxarri abesbatza eskean ateratzearen ohitura mantendu izan du, «mairidire batekin ateratzen gara», azaldu du Nerea Pikabeak; baina hala ere, helburua dirua eskuratzea ez da: «kultur elkarte izanik gure helburua ohiturari eustea da».

Alegiaren kasuan jende gaztea erakartzea lan zailagoa izaten da, izan ere, Txintxarri abesbatzak, Eguberrietan egin bezala, deialdi zabala luzatu ohi du; erantzuna ordea, «betiko jendearen partaidetza» izaten da. Abeslari eta bertsolariez gozatzeko entzuleak berriz, adin guztietakoak izaten dira, herritarrek leiho eta balkoietara ateratzen





Kataniako Agate Deuna torturatua izan zen Quintianus prokotsulak aginduta

baitira iluntzeko kopla horiek entzuzera.

Ikaztegieta ren kasuan, Agate Deunaren omenez kantari atertzen direnak emakumezkoak dira. Urte dezente ko ohitura da Ikaztegieta n emakumeek makilak harturik kantari ateratzeko a; lehenik baserriz baserri eta ondoren herrigunean.

Herriz herri ohitura antzekoak ospatzen badira ere. Jarraian zerrendaturik azaltzen dira eskualdean barrena otsailaren 4ko egunean Agate Deunaren omenez ospatuko diren ekintza ezberdinak Adunan, Albizturren, Alegian, Asteasan, Anotan, Bidegoianen, Ikaztegieta n, Ibarra n, Tolosan eta Zizurkil en.

Mauka
berria



ERABILTZ EKO EPEA: Eskaintzak irauten duena

LA ARROBA LARANJA EKOLOGIKOAK

Valentziako laranja eta mandarina ekologiko hobere nak!

Turiako parke naturaletik zure etxeraino 24 orduan besterik ez.

14,90€

deskontua **%29**

BENAGUASIL - VALENTZIA



Egitaraua

ALBIZTUR

14:30. Irakasleak, haurrak eta gurasoak kantuan aterako dira egun guztian zehar. Dirua eskolako beharretarako erabiliko da.

Iluntzean. Herriko gazteak herrian barrena kantuan eta eskean ibiliko dira.

ALEGIA

Iluntzean. Txintxarri abesbatza kantari aterako da, seguruena azken 4 urteko ohiturari jarraituz Zazpi Astoren Gainean Bertso Eskolako bertsolariekin batera. Larraitz auzotik aterako dira eta herriko plazan bukatuko dute kalejira, bi orduko ibilbidea burutu ostean. Koplak eta Agate Deunaren bezperako doinuak tartekatuko dituzte.

ASTEASU

18:45. Elizmenditik urteroko ohiturari jarraituz, Asteasuko Trikitixa eta Pandero eskola Agate Deuna bezperan eskean aterako dira. Nahi duenak parte hartu dezake. Biltzen duten dirua Trikitixa eta Pandero eskolako beharretarako erabiliko da.

AMASA-VILLABONA

10:00. Fleming Ikastetxeko haur eta lehen hezkuntzako ikasleak herrian barrena kantari aterako dira.

15:00. Jesusen Bihotza Ikastolako DBH 1-2ko ikasleak kantari aterako dira Zentrotik 17:00ak arte.

18:00. Eresargi abesbatzak entsegua egingo du Kultur Etxean. Kantuan 18:30ean aterako dira.

ANOETA

Urtarrilak 31, ostirala. 18:00. Kuku Elkartearen otsailaren 4an kantuan ateratzeko entsegua ospatuko dute anoetarrek.

Otsailak 4, asteartea. 15:00. Anoetako plazan elkartuko dira herriarrak eta handik baserrietara joango dira. Eta ondoren, arratsaldeko 18:30ean berriro plazan elkartuko dira, baina orduan herrian bertan kantari aritzeko.

BIDEGOIAN

18:00ak aldera. Herriarrak herriko plazan elkartu eta baserri baserri ibiltzen dira kantari, gaueko 21:00ak arte. Duela hiru bat urte Bidegoianek berreskuratu zuen Agate Deunan eskean kantari ateratzeko ohitura, aurtengo ohitura mantenduko dute.

IKAZTEGIETA

Arratsaldez. Urteroko ohiturari jarraituz, herriko emakumeak abesten ibiliko dira. Lehenik baserri baserri ariko dira kantuan, eta gero herrigunetik pasako dira.

IBARRA

18:30. Plazatik abiatu eta Izaskunera jo, Izaskunera zuzenean azaltzeko aukera ere badago (18:50). Bertsolari eta trikitilariekin baserri baserri ibiliko dira. Ondoren, baratxuri-zopa hartzeko aukera Xepla elkartearen.

TOLOSA

17:30. Eduardo Mokoroa musika eskolako kalejiran aterako dira eskolatik bertatik, Tolosan barrena ibiliz.

18:30. Lizardikoak elkartearen bertan elkartuko dira askaria egiteko eta gero, aterako dira kalera, 18:30ak aldera. Entsegua gaur, ostiralean, egingo dute 18:30ean Lizardin.

19:00. Udal Musikako koroa eta akordeoiak Agate Deuna ospatzeko.

ZIZURKIL

15:30. Zizurkil Behea. Pedro Mari Otaño ikastetxeko ikasleak aterako dira kantuan herrian zehar.

16:30. Zizurkil Goia. San Millan eskolako haurrak irakasle eta gurasoekin batera kantuan aterako dira.

18:30. Herriko kantu jira taldea bigarren urtez herritarrei deia luzatu die. Elbarrenako plazatik atera eta auzoan kantuan ibiliko dira.



→ Enpresa Salla

Aluminiozko eraikuntza metalikoak egiten dituzten enpresentzat jardunaldia

Altzairuzko zein aluminiozko eraikuntza metalikoak egiten dituzten enpresei zuzendutako jardunaldi bat antolatu du Tolosaldea Garatzenek, Lehiberri zentroan. Izan ere, 2014ko uztailaren 1ean arau berri bat sartuko da indarrean, 1090 Araua hain zuzen ere, eta horren aurretik, eskualdeko enpresek in-

formazio guztia izatea da asmoa. Hitzaldia datorren asteartean, otsailaren 4an izango da. Laukide Kudeaketa Zerbitzuak-ek emango ditu azalpenak bi orduko saio batean. 09:00etan hasiko da eta 11:00k arte luzatu.

Arau honen baldintzak Europar Batasuneko barne merkatuan apli-

kagarriak izaten hasiko dira eraikuntza-lan guztietan. Hala, datorren astearteko jardunaldian Laukide Kudeaketa Zerbitzuak-ek araudiaren gakoak eta enpresek burutu beharreko pausoak zeintzuk diren azalduko dituzte. Baita, bertaraten direnen galderak erantzun eta zalantzak argitu ere.

Diru laguntzen inguruko informazioa eskuragarri

Lehiberriren web orrian eskuragarri dago jada, enpresei zuzendutako diru-laguntzen inguruko informazioa, <http://www.lehiberri.net/eu/ayudas> atalean. Jarraian egunotan argitaratutako diru laguntzen informazioa:

Negoziaren ondorengotza

Enpresa txiki eta ertainen ondorengotza: Edozein jarduera sektoretako mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen ondorengotzaren planifikazio eta prozesurako laguntzak.

IKTen lehiakortasuna hobetzea

E-kontsulta: Euskal enpresei informazio eta komunikazio teknologiak erabiltzeko laguntza teknologikoa, neutrala eta dohainekoa eskaintzeko zerbitzua.

IT Txartela: Ofimatikako ezagutzei buruzko ziurtagiriak ematen dituen zerbitzua.

Mikroenpresa Digital@: Mikroenpresentzako 'Inplantalari' zerbitzuak eta prestakuntza zerbitzuak, beren lehiakortasuna hobetzeko; horretarako, prestakuntza emango zaie informazio teknologiak erabiltzeko.

I+G+Bren lehiakortasuna hedatzea

Ondorio fiskaletarako kalifikazio txosten teknikoak: Ondorio fiskaletarako kalifikazio txosten teknikoak egiteko zerbitzua.

ETORGAI 2014: Industria ikerketako eta garapen esperimentaleko proiektu integratuak –izaera estrategikoak– EAEn gauzatzeko laguntzak.

GAITEK 2014: Produktu berriak garatzeko bideratutako proiektuak gauzatzeko laguntzak.

NETs 2014: Oinarri zientifikoa eta teknologikoa duten enpresak merkaturatzeko proiektuak egiteko laguntzak.



Errioko mendi tontorretik Aralarako mendi tontor zurituena ikuspegia, tartean Txindoki. Azken asteak ekarritako elurra rentestigu. K. SEARA

Abortua



Imanol Artola Artetxe, 'felix'
Filosofoa eta antzezlea

Azken aldian abortua bolo-bolo dabilen kontua da. Dela emakumeen eskubidea, dela bizitzarako eskubidea, guztiek darabilte kontua euren ahotan. Batzuen ustez, Jainkoak (nahi bada deitu Naturak, Zoriak, Badenak) sortu gaituen bezala sortu gaituenez, hori eskertu behar diogu. Berak eskaini dizkigun gaitasunak baliatu behar ditugu eta ezin gara joan horien aurka. Besteen ustez ordea, emakumea da erditzen duena eta beraz, bere erabakitzeke eskubidea aldarrikatzen du.

Halere, inork gutxi aipatzen du etortzekoa den haurren egoera. Emakumea mila arrazogatik gera liteke haurdun: izan liteke arduragabekeriagatik, nahigabe edo behartuta. Berdin du haurdunaldiaren kausa hiru horietako zein den. Kontua da, guraso-gaiek guraso izan nahi ez badute, haur hori maitasun ezera kondena daitekeela, gurasoen maitasun ezera alegia.

Maitasunik eza gorrotagarria da. Guraso izan nahi ez duten guraso-gaiek jaiotzea nahi ez duten haurrari zer maitasun eskainiko diote bada? Bizitza hondatzen zaie gurasoei eta hondamendi hori datorren haurrarekin ordain lezake. Jaiotzeaz den haurra zama batekin jaioko da eta zama hori eramaten asmatzen ez badu, desorekatutako gizaki bilaka daiteke.

Errazena haurra mundura ekartzea da (barka diezadatela umea izan nahi eta ezinean dauden horiek). Lanik zailenak haurra munduratu ostekoak dira. Horregatik, ez nago ez abortuaren alde, ez eta aurka ere. Soilik, haurrek gurasoen maitasuna izatea ziurtatu nahi dut.

Izan gaitezen bizitza zoriontsuen alde! Ez dezagun inor zigortu!

Ez dezagun inoren bizitza ez-maitasunera kondena!

Belaunaldi galdua



Manex Izagirre Elizaran
Gaztea

Telebistaren belaunaldia gara. Marrazki bizidun japoniarrena, bideo jokoena eta internetena. Baina baita eguna kalean jolastuz igaro dugun azken belaunaldia ere. Gustuko dugu gure garaiari etiketak ipintzea.

X belaunaldia da gurea. Oparotasun ekonomiko garaian esne mamitan hazitakoa. Unibertsitatera joatea ia derrigorrezko aukera izan duena. Goi mailako ikasketak euskaraz egin dituen. Hizkuntzak dakizkiena.

Erasmus belaunaldia gara. Europarena, globalizazioarena eta anti-globalizazioarena.

Internetena, *gain-informazioarena*, komunikazioarena eta inkomunikazioarena.

Politikan fedea galdu dutenena. Idealak iraganez gauza direla uste dutenena.

Mileuristen belaunaldia. «Esperientzia hartzearen» musu-truk lan egin dugunona. Etxea erostea garai bateko ametsa iruditzen zaigunona.

Gustuko dute kazetariak ere etiketa hauek guztiak erabiltzea, eta orain, azkeneko azterketen emaitzei etiketak jarri dizkiete: belaunaldi galdua omen gara. Kriaren eraginez lan bila kanpora joan beharrean aurkitzen garenona. Eta kanpora joanez gero hiritar eskubideak galtzen ditugunona.

Ekonomia eredu okerrak, ereduaren kudeaketa oraindik eta okerragoak, burbuilek, unibertsitario gehiegiz izateak... ikasi ez dugun zerbaitetan lan egitera edo immigratzera bultzatu gaitu.

Baina ez nuke esango honek guztiak loa galarazten digunik.

Akaso ez diogulako hainbeste etorkizunari begiratzen. Galdua dugulako erretiro-pentsioa izateko esperantza. Gogoko dugulako bidaiatzea. Garai berriera moldatuko garelako. Eta, espero dut, egindako akatsetatik ikasiko dugulako.



Euskaraz bizi, euskaraz kanta



Itxaropena Urkiola
Irakaslea

Lelo honekin Tolosako Laskorain Ikastolak gure ondarearen doinuak eramango ditu ikasgelara aurki.

Ahozkoan dohainak dituenak berehalakoan lortzen omen du bezeroaren arreta piztea, eta horixe da helburua, ohartarazi gure kantak altxor direla, historiaz beteak daudela, sentimendu anitzez, zorionez nahiz zoritxarrez, baina edozein kasutan, gureak direla. Paperetik ahora eramango ditugu *Xalbadorren Heriotza*, *Donostiako Hiru Damatxo*, *Martxa baten lehen notak*, *Batasuna*,...eta beste hainbat kanta eta doinu.

Gutxira txarangek hartuko dituzte plaza eta kaleak Inauterietan, horiek ere ondare ditugu; *Pitxi-pitxi polit bat*, *Galzauendi*, *Zein politak diren*, *Jeiki-jeiki*...

Gure ahozkoak baina, erakusleihu, oholtza, plaza desberdinak izan ditu lekuko arestian; sagardotegiak, mendi malkarrak, txangorako bidea autobuse-

an, ezkontza egunak, elkarteetan egindako hamaiketako nahiz askariak...

Orain ere, musika nonahi entzun daiteke, edozein garraiotan bidaiatzen ari garela, kalean, gure logelan, eta noski, gailu berritzaile eta teknologiko anitzak ditugu eskura, zein baino zein txikiagoa eta eramangarriagoa. Horrek guztiak aitzitik, ez du kantuaeren, ondarearen etorkizuna bermatzen. Gazteei abesbatzak, familiak, irakaskuntzak erakutsi behar dizkiete gure iragana, gure lehen kantak, nor garen baina baita nondik gatozen ere. Horretarako noski, euskara ezinbesteko dugu. Euskara baita gure izatearen zutabe.

Sarea zintzilik dago, MP4a hankamotz, eta sakelekoek ez dute ere transmisio lan hori egingo. Gu geu izango gara gidari, eta hala, amaren bularretik mintzorako jalgian, *aita-semea tabernan daude* abestuko du *Itziarren semeak*, eta amonak kontatuko digu nola behin, *gure aitak amari gona gorria ekarri zion*, eta gure euskararen aldaerak direla eta, nola egingen dugun *Araban bagare*, *Gipuzkun bagera*,...

Ikastolak euskararen transmisioaren harira, beste behin ahoa darabil, hitz antzurik gabe; ekin eta ekin, euskaraz bizi eta euskaraz kantatuz.

Izan ere, kantatzen duen herri bat ez da sekula hilko.

KOMIKIA



Joseba Antxustegietarte



Zorionak Nahia!

Nahia Ortiz Vicente (Larraul).

Bihar 8 urte!
Zorionak bihurri!
etxeko guztien partetik eta bereziki aita, ama eta zure anaia Inharren partetik.

Eguraldia




Iker Ibarluzea
Eguraldi mutila

Ostiralean

Eguraldiak hobera egingo du, hala ere, ez luzerako. Goizean oraindik ere, ipar-mendebaldeko haizea ibiliko zaigunez zaparradaren bat edo beste izango dugu, eta eguerdian haizeak mendebaldera, hego-mendebaldera egingo duenez, orduan atertu eta ostarteren bat ikusiko dugu. Tenperaturak zertxobait erreperatu egingo dira eta altuenak 10-11°-ren bueltan ibiliko dira.

Larunbatean

Nabarmen egingo du okerrera eguraldiak asteburuan. Goizean mendebaldeko, hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, fronte hotz bat sartuko zaigu eta euri dezente botako du goizean. Arratsaldean haizeak ipar-mendebaldera aldatuko da, frontea pasa egingo da baina ondoren aire hotza sartuko denez zaparrada giroa nagusituko da. Gainera, ekaitzak jo eta txingorra ere bota lezake. Elur maila goizean 1.100-1.200 metrotan kokatuko da baina eguna bukatzerako 500-600 metrotan zurituko du.



Igandean

Goizean ipar-mendebaldeko haizearekin jarraituko dugunez, zaparrada batzuk izango ditugu eta elurraren maila oraindik 500-600 metrotan mantenduko da. Arratsaldean haizeak berriz ere, mendebaldera, hego-mendebaldera egingo du eta euria gutxitzera egingo du. Egunaren bukaeran nahiz eta ez duen erabat atertuko askoz euri gutxiago egingo du. Tenperatura altuenak 10-12°-ren bueltan ibiliko dira.

Astelehenean

Hego-mendebaldeko haizea bueltan etorriko da, indartsu joko du eta zaparradaren bat edo beste izan arren, astelehenean euri askorik ez du egingo. Tenperatura altuenek zertxobait gora egingo dute, 12-13°-ren bueltan kokatuz. Eguraldi aldakor honek gurekin beste bizpahiru egun iraungo du. Hego haizea nagusituko da hurrengo egunetan, astearen hasieran batez ere eta tarteka zaparradak izango ditugu.

Ostirala
31



Larunbata
1



Igandea
2



Astelehena
3



ALQUILER DE BOXES

Zergatik ordaindu hainbeste urteroko kotxearen, motoaren, furgonetaren edo kamionetaren azterketa edo olio aldatzea

Hiru erataria egin dezakezu:

Zuk eginda, zuk gurekin ikasiz eginda edo guk eginda.

Deitu eta eskatu prezioak konpromisorik gabe 943 36 08 50 edo boxes@euromikels.com

EUROMIKEL'S

N-1 errepidea. 441 km. 34 industrialdea • Villabona • Tel.: 943 360 850 • 609 40 67 40 • Faxa: 943 365 401 • boxes@euromikels.com • www.euromikels.com

Isladek ez dezatela ezkutatu nolakoa zaren.

mô betaurreko graduatuak islaren aurkako beslayt kristalekin

67€

ARRASATE • BERGARA • BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

IRIARTE JAUREGIA
hotel

BAILARA
RESTAURANT

IRIARTE JAUREGIA HOTELA - BAILARA JATETXEA



www.iriartejauregia.com/eu/jatetxea.asp

Gaur, urtarrillak 31, oporrak amaitu ondoren berriro zuekin gaude
Bidaniaman dagoen Iriarte Jauregia Hotelak jatetxea ireki du

Bailara Jatetxea

guztiontzat zabalik, bazkaltzeko edo afaltzeko

Proposamen gastronomiko ezberdin eta berrituarekin.
Enrique Fleischmann Chefaren autorezko sukaldaritza eskaintzen da.

Zatoz Bailara Jatetxea ezagutzera !!!

Erreserbak : 943 681 234

Zatoz ikastolara

Aurrematrikula

Epea

Otsailaren 3tik 14ra

Ordutegia

09:00-12:30 / 15:00-18:00



Anoetako Herri Ikastola

943 65 29 32

www.anoetakoherriikastola.net



Irurako Ikastola

943 69 43 74

www.irurakoikastola.net



**Jesusen Bihotza Ikastola
(Villabona/Zizurkil)**

943 69 23 21

www.jesusenbihotzaikastola.com



**Laskorain Ikastola
(Tolosa)**

943 69 71 22

www.laskorainikastola.net



**Tolosako Inmakulada
Ikastetxea**

943 67 36 29

www.inmakuladatolosa.com



**Uzturpe Ikastola
(Ibarra)**

943 67 12 99

www.uzturpe.net



TOLOSALDEAKO IKASTOLAK

